

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa era guztietako pertsonengana bideratuta egongo da, adina edo generoa edozein dela ere. Saltzen ditugun produktuak kalitatezkoak izango dira, eta horrek jendea erakartzen du.

Era berean, 5 pertsonatik gorako pertsona-taldeentzako eskaintza mota desberdinak egingo ditugu, gure produktuak pertsona gehiagok kontsumitzeko estrategia mota desberdinak eginez.

Gure produktuak janari izango dira, eta oraingo ez da ideia horretatik ateratzeko asmorik; guk ahalik eta hobekien artatzeko zerbitzua emango diegu, ondo senti daitezzen, eta eurek aukeratutako produktua prestatuko diegu.

Esan dudan bezala, ez gaude pertsona jakin batengana bideratuta, baina nerabeak hurbiltzen saiatuko gara, talde hori gizarteko talderik zabalenetakoa baita.

Kebab-jatetxearen irudia aldatu nahi dugu, ez dira bakarrik gazteak jateko edo afaltzeko. Gure asmoa merkatuko edozein segmentu erakartzea da, edozein jatetxe bezala familia edota enpresak afaltzeko afari bereziak egingo ditugu.